

Ingurumen, Lurralde Plangintza eta Etxebizitza Sailari,



2018 A.P.I. 18
ABR.



Idatzi honen bitartez, gaur 2018ko apirilaren 18 izanik, eta Lurralde Antolaketako Gidalerroen errebisioaren Hasierako Onespen dokumentuaren erakusketa publikoaren epean egonik, ELAk bere alegazioak aurkezten ditu.

Besterik gabe,

Ainhara Plazaola Ugarte
ELA Sndikatuko Ingurumen Arduraduna



1. The first part of the document is a letter from the President of the United States to the Congress.



2. The second part of the document is a report from the Secretary of the Treasury.



3. The third part of the document is a report from the Secretary of the Interior.

4. The fourth part of the document is a report from the Secretary of the War.

5. The fifth part of the document is a report from the Secretary of the Navy.



ELA Sindikatuaren alegazioak EAEko Lurralde Antolamenduaren Gidalerroan

Berrikuspenerako Hasierako Onespenaren Dokumentuari

ELAk LAGen berrikuspeneraren balorazioa egiterakoan, bai Hasierako Onespenaren dokumentuarena, bai aurretik Oinarrizko dokumentuarenak eta bai Aurrerapen dokumentuarenak egin dituenean, irizpide berak erabili ditu, sindikatuaren aburuz lurralde antolaketarako edozein plangintzak bete behar dituenak: iraunkortasuna, pertsonen ongizatea eta justizia soziala.

Aurreko dokumentuetatik Hasierako Onespen dokumentu honetara aldaketa nabariak atzeman dira, batzuk positiboak, baina oraindik ere badira aldatu beharreko irizpide eta norabideak. Alor konkretuen inguruan honako hauek dira, ELAren aburuz, atal bakoitzean azpimarratzekoak eta ELAk egiten dituen ekarpenak:

LAG hauek oinarri hartzen duten lurralde ereduaren inguruan esan, positibotzat jotzen dugula azpiegitura berdeari ematen zaion balio ez-ekonomikoa, ekosistemen zerbitzu izaera azpimarratzea, landa ingurunea bereziki ageriko egitea, lurzoruaren erabilera optimizatzea eta berroneratzea lehenestea eta aurretik aipatutako baliabideen kudeaketa iraunkorra ardatz izatea. Baina hala ere badira aurreko dokumentuan negatibotzat hartzen genituen kontzeptuak eta oraindik indarrean dirautenak Hasierako Onespen honetan. Esaterako azpiegitura handiei ematen zaien izaera artikulatzailea, eta batez ere AHTri ematen zaion balioa. Bestalde, dokumentu honek ez du landa-hiri dikotomia hausten, ez baitu jarduera ekonomikoa eta nekazaritzaren arteko banaketa espaziala guztiz baztertzen.

Azpiegitura berdeari dagokionez ELAk azpimarratu nahi du oraingo Hasierako Onespen dokumentu honetan azpiegitura berdearen definizioan ez dela hainbeste aukera ekonomiko eta aisi gune bezala ikusten eta beste jarduera eta zerbitzu batzuk lehenesten direla. Hala ere falta botatzen dugu enplegu klimatiko edo enplegu berdeen kontzeptua barneratzea. Zonalde hauek ematen dituzten zerbitzuek (klimate aldaketa geldiaraztea, gertuko elikagaien hornidura, ingurumen kalitatea hobetzea...) guztiz betetzen baitituzte enplegu tipologia honen ezaugarriak. Gogoratu nahi dugu puntu honetan, ELAk 2014an eginiko azterketa batetik ondorioztatu zela Hego Euskal Herrian 106.000 enplegu berde sor daitezkeela, eta horietatik portzentaje handi bat azpiegitura berde hauei esker eta bertan kokatuta egongo zirela. Kontuan izan beharreko zerbitzu eta enplegu sorrera da, zonalde hauetan sor daitezkeen dinamika berri hauek, zerbitzuak, ekipamenduak eta

populazioa egonkortzen laguntzen dituzten dinamikak, lurralde antolaketarako plangintzekin ere lagundu behar baitira.

Landa habitatarentzat zehazten diren helburuekin ados egon arren, Aplikatzeko Arauen 19.artikuluari jasotzen diren landa habitataren arloko gidalerroek ez dituzte helburu hauek betetzeko bermerik eskaintzen. Helburuetan elikadura burujabetza, hurbileko horniketa, eta zerbitzu eta ekipamendu mailan hiri habitatarekiko berdintasuna bermatzea aipatzen da, gidalerroetan berriz nekazaritza jardueren iraunkortasun ekonomikoa eta bizi kalitatearen hobekuntza dira aipatzen direnak. Ez dira gauza bera eta horregatik atal honetan ematen den koherentzia falta azpimarratu nahi dugu. Bestalde, eta azpiegitura berdearen inguruan aritu garenean esan dugun bezala, landa habitataren gidalerroak ezartzerakoan enplegu berde edo klimatikoen potentzialtasuna aitortu eta hauek bultzatzeko neurriak falta dira.

Hiri habitata da dokumentu honetan pisu gehien duen ataletako bat, populazio eta espazio aldetik gure lurraldean pisu gehien duena eta landa habitataren gainean presio gehien egiten duena. Horregatik da atal hau bereziki garrantzitsua, eta arrisku gehien izan dezakeena, lurralde osoaren antolaketan. Hiriburuei dagokienez berroneratzea lehenesten da lurzoruak okupatzearen aurretik, baina honek ez du helburuetan agertzen den hiriburuen hedapena mugatzen. Beharrezkoa da muga hau helburuetan aipatzen den bezala eremu funtzionaletako buruak indartu eta lurraldea sistema polinuklearra izaten jarraitzeko. Gure hiriburuek lurraldeko gainontzeko hiri eta herriek baino zerbitzu eta ekipamendu maila hobea dute, beraz esfortzua ekipamendu eta zerbitzu maila hori lurralde osora zabaltzean zentratu behar da. Salbuespena lirateke hiriburuetan bizi kalitate mailaren arabera dauden desorekak. Desoreka hauek aipatzen dira helburuetan baina ez da gidalerro espezifikorik zehazten hiri habitatari dagozkion Aplikatzeko Arauen 7., 8., 9., 10., 11. eta 12. artikuluetan. LAG hauek lurraldeko zonalde ezberdinak egoera berdinean egongo balira bezala lantzen ditu, defizita duten lekuak bereziki tratatu gabe. Bestalde interesgarria da hiri-hazkundearen perimetro kontzeptua eta berau udalez gaindiko planeamenduetatik ezartzea. Perimetro hau Lurralde Plan Partzialek zehaztu behar duten arren udal planek egokitze bidea zabaltzen da. Udalek izan ditzaketen hazkunde interesak kontuan izanda, bizi kuantifikazioarekin gertatzen den bezala, udalen ahalmen hau ongi zehaztu eta mugatu behar da.

Bizi kuantifikazioaren berrikuspenaren inguruko balorazioa jada 2014ko irailaren 29an aurkeztu zuen ELA sindikatuak alegazio gisa, eta alegazio horiek dira oraindik ere mantentzen ditugunak. Laburbilduz, bizi kuantifikazioa zehazten duten gidalerroek burbuila inmobiliarioa ekarri ziguten hazkunde irizpidea mantentzen dute eta ez dute etxebizitza duin bat izateko eskubidea

bermatzen.

Jarduera ekonomikoaren antolaketa LAG hauen beste elementu garrantzitsua da, hauek ere lurraldean presio handia egiten baitute. Puntu honetan aipatutako helburuetan lehendik dagoen lurzoru industrialari balioa eman eta berrerabiltzea aipatzen da, baita lurzoru horien dentsitatea areagotzea eta erabilera mistoa bultzatzea ere. Guztiz ados gaude helburu hauekin baina Aplikatzeko Arauen 12. artikulua 4c gidalerroa guztiz kontrajarria ikusten dugu. Gidalerro honen arabera *“gaur egun industriadako edo jarduera ekonomikoetarako kalifikatutako lurzoruak bizitegirako edo antzeko erabileretarako birkalifikatzeko prozedurak onartzea, soilik alde aurretik eta dokumentu egokien bidez justifikatzen denean teknikoki, ekonomikoki eta hirigintza arloaren ikuspegitik ezinezkoa dela beste hirigintza eragiketa bat planteatzea. Kasu horretan, bada jarduera ekonomikoetarako lurzoru berria -azalera baliokidearekin- txertatuko da hirigintza plangintzan”*. Gidalerro honek atea irekitzen dio jarduera ekonomikorako edo industriadako erabilera duen lurzoruari, berrerabili beharrean bizitegi erabilera emateko, honek ekarri dezakeen espekulazio arazoekin, lurzoru hauek sarri hiri eta herri erdialdetan aurkitzen baitira. Kalifikazio berriko lurzoru espekulazioa sortzeaz gain, hirien periferiara kanporatuko ditu jarduera ekonomikoa eta industriak, erabilera mistoa baztertuz eta lurzoru berriak okupatuz berrerabilpen irizpidea bertan behera utziz. Gidalerro honek aurreko hamarkadetakoko lurzoru urbanizagarrien espekulazioa eta lurzoru berria okupatzea bezalako arazo larriak iraunaraziko ditu. Beronen aplikazioa justifikazio dokumentuen esku uzten da soilik, eta hau ez da inondik inora kontrol erreminta eragingarri bat, ez eta gizartearen onura bermatuko duena ere. Merkataritza ekipamenduen inguruan ez dago ezer berririk aipatzekorik. Hiri merkataritza lehenestea aipatzen da aldiriko merkataritzaren aurrean baina ez da merkataritza ekipamenduen gehieneko azalera mugatzea besterik aipatzen. Zehaztasun eta neurri gehiago behar dira benetako hiri merkataritza eta hiri bizimodua sustatzeko.

Turismo baliabideak paisaiaren atalaren barruan sartzen diren arren, jarduera ekonomiko garrantzitsua eta lurraldean inpaktu handiak uzten ari dena izanik, jarduera ekonomikoaren atalarekin batera aipatzea komenigarri ikusten dugu. Baliabide natural eta kulturalak babestea eta eskaintza dibertsifikatzea oinarritzkoa da, eta hala azaltzen da helburuetan. Baina azken urteetan ematen ari den fenomeno baten diagnostiko sakonagoa faltan bota dugu: pisu turistikoaren arazoa. Baliabide gisa aztertzen dira eta etorkizuneko hirigintza plangintzetan kontuan hartzekoak, baina dagoeneko ezagutzen ari gara zein kalte eragiten ari diren batez ere gure hiriburuetan, eta beraz, LAG hauetan gidalerro zehatzak behar dira hirigintzan izan ditzaketen inpaktu zehatzak ekiditeko. Besteak beste: alokairu prezioen burbuila, hiri erdiguneetatik populazioa desplazatzea, edo

bizikidetza arazoak turista tipologia konkretu batzuekin. Dokumentu honek Baliabide Turistikoaren Lurralde Plan Sektorialaren (LPS) esku uzten du eginkizuna eta ez du gidalerro hauen eginkizun garrantzitsuena betetzen: LPSn garatu beharreko irizpideak zehaztea. Dokumentu honek pisu turistiko hauen inguruan planteatzen duen bakarra kuantifikazioa egitea eta lurraldearen harrera ahalmena eta bizilagunen bizi kalitatea bateragarri izan behar direla aipatzea da, baina horretarako irizpiderik zehaztu gabe.

Aipagarria da dokumentu honetan baliabideen kudeaketa iraunkorra eta bere barne hartzen den ekonomia zirkularraren atal berria. Ekonomia zirkularra, gaur egun Europako hainbat arauk eskatzen duten ezinbesteko ikuspuntua da gizarteko edozein esparru antolatzeko, horregatik LAGen berrikuspenean ikuspuntu hau barneratzea oso positiboa da ELarentzat. Baina ekonomia zirkularra ez da zeharkako gai gisa hartzen eta izan beharko luke.

Dokumentuak dio ekonomia zirkularraren arabera hondakinen kudeaketa berrerabiltzean, birziklatzean eta balorizatzean oinarritzen dela, eta hau ez da egia. Ekonomia zirkularrak ez du EAEn ezagutzen dugun balorizazioaren apologiarik egiten, dokumentu honek egiten duen bezala. Gogoan izan behar da LAG hauen berrikuspena gauzatzen ari den EAJk Gipuzkoan zein lehentasun dituen hondakinen kudeaketan: erraustegia eraikitzea. Murrizketa, berrerabilpena, gaikako bilketa eta birziklapen helburuak bete aurretik. Ekonomia zirkularraren beste muturrean aurkitzen dira erraustegiak, beraz ez gaitzezen engainatu, LAGetan helburu batzuk jarri dira eta errealtatean beste batzuk bultzatzen dira. Bestalde, ekonomia zirkularra hondakinetatik eta lurzoruen erabileratik haratago doan kontzeptua izanik, jarduera ekonomikoetan, batez ere industrian eta diseinuari loturiko jarduera berritzaileetan, aplikatu beharreko irizpidea da, eta ez da ekonomia zirkularrik aipatzen dokumentuaren beste ataletan. Gainera kontzeptu hau ekonomiaren eta industriaren trantsizio ekologikoarekin lotu behar da, beste ekoizpen eta kontsumo eredu bat izan dezagun, emisio gabea eta baliabideen erabilera iraunkorrean oinarritua. Trantsizio kontzeptua beharrezkoa ikusten dugu LAG hauetan eta ez da inon aipatzen.

Energiaren atala oso garrantzitsua da edozein plangintzetan, are gehiago energia fosilen arazoa hain larria denean eta klima aldaketa ihesik ez duen errealtate bihurtu denean. LAG hauek zehaztutako helburuak motz geratzen dira ordea dugun erronkaren aurrean. Azpimarra eraginkortasuna gehitzean eta berriztagarrien erabilera areagotzean jartzen da, eta energia berriztagarriaren sorrera aipatzen den arren kogenerazioa ere bere pare jartzen da. Gainera energia alternatiboak aipatzerakoan gas naturala ere onartzen du eta hau onartezina da, energia fosila baita. ELAren aburuz helburu hauek ez dute klima aldaketari aurre egiteko energia eredua

bultzatzen. Helburua energia berriztagarriekin osotasunean hornitzea izan behar da eta aldi berean eraginkortasuna bultzatzea energia hauen kontsumoa ere gutxitzeko. Baina kogenerazioa ez da berriztagarria eta ekoizpen kutsatzaileei lotuta egonik ez da onargarria, ekonomiaren trantsizioa ekologikoaren barruan ekoizpen eredua ere aldatu egin behar delako ekonomia zirkularraren puntuan jada azaldu den bezala. Helburuetan ados ez egonik, Aplikatzeko Arauen 16. artikuluan zehazten diren gidalerroak oso mugatuak dira behar dugun energia eredua garatu ahal izateko, eta zenbait kasutan, Aplikatzeko Arauen 3. gidalerroan esaterako, kontrako norabidea ere bultzatzen da gas naturala sustatuz.

Mugikortasunari dagokionez, helburu orokorra garraio sare irisgarria, praktikoa eta emisio gutxikoa izatea da. Guztiz ados helburu orokorrarekin baina puntuz puntu garatu beharreko arloa da mugikortasunarena.

Aurreko Oinarrizko dokumentuaren alegazioetan ELAk oinezkoen bideei eta bizikleta bidezko mugikortasunari lehentasunezko bultzada bat ematea eskatu zuen. Badirudi Onespen dokumentu honetan aisitik haratago duten balioa eman eta herrien arteko eta eskualde arteko konektibitatea bultzatzeko elementu gisa aitortzen direla, beraz helburua zuzendu dela esan dezakegu. Hau abiapuntu ona da baina sarea gidalerro hauetan aipatzen dena baino askoz gehiago zabaldu behar da, herri eta eskualde denek aukera berdintasuna izan dezaten eta ez soilik hiri zonaldeetako populazioak. Oinarrizko dokumentuan errepide sarea bukatutzat ematen zen, baina Onespen dokumentu honetan zati handiena burututzat jotzen da. Atzerapen handia da hau, duela lau urte bukatutzat emandakoa nola liteke orain bukatu gabe egotea? Errepide gehiago behar direla uste al da benetan? Onartezina. Dagoeneko eraikita dauden errepide batzuk aurreikusitako erabileraren oso azpitik daudenean, Bilboko hegoaldeko saihesbidea esaterako (Super Sur).

Aparteko aipamena merezi du berriro ere azpiegitura handien atalak. Trenaren inguruko LAGak Abiadura Handiko Trenera mugatzen dira, aldirietakoak alde batera utziz, benetan lurraldea artikulatzen duen azpiegitura izanik eta populazioaren gehiengoak erabiltzen duena izanik. AHT funtsezko azpiegituratzat hartzen jarraitzen da. LAGen berrikuspena egiten ari direnen arabera kanpoko eta hiriburuen arteko konexiorako eta lurraldea artikulatzeko elementua da, eta garraio publikoarekin guztiz konektatua. Beste lurralde batzuekin konektatuko gaituela zalantzan dago, batez ere frantses Estatuak aspaldi esan zuelako ez dela bere lehentasuna TGV Hendaiaraino ekartzea, eta hau horrela izanik Europarekin konexioa galtzen da. Estatuan dagoen AHTren eraikuntzaren atzerapena eta beharraren zalantza ikusita (eta linea batzuk eraiki ondoren ez daudela martxan ere) Estatuko beste zonalde batzuekin lotura ez dago bermatuta. Hiriburuen

arteko lotura egingo duenik ez dugu zalantzan jartzen, baina dagoeneko errepidez ordubete eskasean lotzen diren hiriburuak AHTren beharrik ez dute. Lurraldearen artikulazioa aipatzen denean, desartikulazioa esan beharko litzateke, horrelako azpiegitura handiek hiriburuaren artean dagoen lurraldeari kalteak bakarrik ekartzen baitizkio desberdintasunak areagotuz: garraio publiko sarea murrizten da, ingurumen kaltea handiak jasaten dituzte eta pertsona eta ekonomia fluxuak hiriburuetan kontzentratzen dira beste zonaldeen kalterako. Beraz, non dago onura? Oraindik ere merkantzien garraioa aipatzen da, espainiar Sustapen Ministroak esana du jada AHTk ez duela inoiz merkantziarik garraiatuko beraz argumentu hau baztertzeko ordua da, jakinaren gainean gezurra esaten ari baita Eusko Jaurlaritza egiaztapen hau egiten duen bakoitzean. Errentagarritasun ekonomikorik, sozialik eta ingurumen arlokorik ez duela frogatua egonik, nola jarraitzen dute EAEko agintariak alferrikako azpiegitura hau defendatzen eta eraikitzen?

Bukatzeko aipamen bat zeharkako gaien inguruan. Gai hauek zeharkakoak izanik aparteko puntu gisa aipatu beharrean gainontzeko ataletan sartu beharko lirateke. Adibidez, klima aldaketari dagokionean, helburu interesgarriak agertzen dira: karbono urriko energia eredu bultzatzea, hondakinak murriztea, kontsumo arduratsua eta ekosistemen erresilientzia mantentzea esaterako. Baina helburu hauek bakoitzari dagokion atalean sartu beharko lirateke: energia, hondakinen kudeaketa, ekonomia zirkularra eta azpiegitura berdea hurrenez-hurren. Eta atal hauetara jotzen badugu helburu hauek ez dira agertzen dagozkien gidalerroetan nahikoa garatuta. Hurrengo LAG dokumentuan neurri bakoitzak dagozkion artikulatuan lantzea espero dugu, aparteko ataletan lehentasuna galtzen baitute.

Laburbilduz, ELAk aurreko dokumentuei aurkezturiko alegazioetan aldarrikatzen zuenarekin jarraituz, eta lurraldearen oreka eta kohesioa helburu izanik, LAGk eta hauek bultzatzen duten lurralde eredu baliabide ugariaren birbanatzailea izatea eta lurraldearen multifuntzionaltasuna bermatzea exijitzen dugu, elkartasuna eta iraunkortasuna LAG hauen irizpide nagusiak izan behar direlarik horretarako. Aurrerapen dokumentuarekin alderatuz hobekuntza batzuk aurkitu ditugun arren, oraindik asko dago egiteko benetako lurralde eredu iraunkor eta justua izateko.

Izenpetzen du:

Ainhara Plazaola Ugarte

ELA Sindikatuko Ingurumen Arduraduna